

Egungo mundu interkonektatu honetan hainbat hizkuntza hitz egiteko eta muga linguistikoez harago komunikatzeko gaitasuna funtsezko trebezia da. Hizkuntza bat baino gehiago hitz egitea, ondo menderatu ez arren, onuragarria da halaber. Hizkuntza bat baino gehiago menderatzea alfabetatze global mota berri bat da. Hizkuntzen irakaskuntza hedatu beharra dago guztiontzat, zahar eta gazte.

Nolanahi ere, mundu osoko milioika pertsonari ukatu egiten zaie nortasuna ematen dieten beren komunitateko hizkuntzei eusteko, haietaz gozatzeko eta haien garatzeko berezko eskubidea. Bidegabekeria hori zuzendu beharra dago, eta gizarte eta gizabanako eleaniztunak babestuko dituzten hizkuntza politikak egin.

Geuk, Salzburg Global Seminar ekimenaren barruan 2017ko abenduaren 12 eta 17 artean egin zen *Springboard for Talent: Language Learning and Integration in a Globalized World* (Talentuarentzako tranpolina: hizkuntzen ikaskuntza eta integrazioa mundu globalizatuan www.salzburgglobal.org/go/586) saioan parte hartu genuenok, eleaniztasuna eta hizkuntza eskubideak balioetsi eta babesten dituzten politikak eskatzen ditugu.

Mundu eleaniztun baten aldeko Salzburgeko adierazpenak euskarri izango ditu txosten osatu bat eta 2018an zehar argitaratutako funtsezko gaien buruzko zenbait blog.

Salzburgeko adierazpena mundu eleaniztun baten alde

BIZI GAREN MUNDUAN:

- NBEko estatu kide guztiak (193) eta pertsona gehienak eleaniztunak dira.
- 7.097 hizkuntza hitz egiten dira mundu osoan.
- Hizkuntza horietako 2.464 arriskuan dira*.
- 23 hizkuntza daude besteen gainetik, eta munduko biztanleen erdiek baino gehiagok hitz egiten dituzte.
- Pertsonen % 40k ez dute ulertzen duten hizkuntza batean ematen den hezkuntzarako sarbiderik.
- 617 milioi haur eta nerabek ez dute gutxieneko irakurketa maila.
- 244 milioi pertsona nazioarteko migratzaileak dira, eta horietatik 20 milioi iheslariak (talde hori % 41 hazi da 2000. urtetik). Migratzaileak eta iheslariak bakarrik hartuta, munduko 5. herrialde jendetsuena osatuko luke.

Gure mundua benetan da eleaniztuna, baina hezkuntza sistema eta sistema ekonomiko askok, herritartasun prozesuek eta administrazio publikoek oztopoak eragiten dizkiete oraindik milaka pertsonari, haien hizkuntzak eta hizkuntza gaitasunak direla eta. Erronka horri heldu behar diogu, baldin eta 193 herrialdeek 2015ean “pobrezia ezabatu, planeta babestu eta guztiontzako oparotasuna ziurtatzeko” ezarritako Garapen Jasangarrirako Helburuak, lortu nahi baditugu. Hizkuntza politika sendo eta bidezko batean oinarritutako hezkuntza sistema justu bat edukitzea ezinbestekoa da guztion aurrerabiderako.

PRINTZIOAK

- Eleaniztasunak bere baitan biltzen ditu hizkuntzen berariazko irakaskuntza, eta gizarte eleaniztunetan sortzen diren komunikazio eredu informalak.
- Eleaniztasunak erreferentzia egiten dio gizakiek hainbat hizkuntza hitz egiteko gaitasunari.
- Egoera historiko, geografiko eta sozioekonomikoen hainbat eleaniztasun modu eta erabilera sortzen dituzte.
- Hezkuntza eleaniztunak, eta estatuek eta nazioarteko erakundeek gizartearen eleaniztasunari emandako babesak, jakintzaren trukea eta kulturen arteko ulermena sustatu eta nazioarteko harremanak indartzen ditu.

Berariazko hizkuntza politikek gizartearen kohesioa areagotu dezakete, hezkuntzako emaitzak hobetu, eta garapen ekonomikoa sustatu. Hizkuntzak ikasteko hurbilketa batukorrek aukera ematen diete haurrei irakurketa eta idazketa gaitasun bikainak lortzeko; lagundu egiten diete komunitateei nortasuna ematen dien hizkuntza, jakintza eta sinesmenak gordetzen; eta aukerak sor ditzakete pertsonentzat onura pertsonalak, aisiarakoak, kulturalak edo ekonomikoak ekar diezazkieketen hizkuntzak ikasteko. Politika eleaniztunak sostengu izan daitezke hizkuntza aniztasunaren baliabide bakan eta ezinbestekoa babesteko, eta aldaketa positiboak ekar diezazkiokete munduari arlo ekonomikoan, sozialean, eta politikoan.

Pertsona, korporazio, erakunde eta gobernuei eskatzen diegu eleaniztunaren aldeko jarrera har dezatela; hizkuntza aniztasuna arau global gisa goretzi eta sustatuko duen jarrera bat, hizkuntzagatiko bazterkeriari aurre egingo diona, eta eleaniztasunaren aurrerabidea eragingo duten hizkuntza politikak garatuko dituen.

GOMENDIOAK

Politiken diseinua

Hizkuntza politika eraginkorrak egiteko ezinbestekoak dira espezialisten ekarpenak eta interesdunen parte hartze aktiboa. Hizkuntzei buruzko erabaki arrazional eta argiak hartzeak zera esan nahi du:

- Lortzeko modukoak diren helburu errealistak negoziatzea.
- Talde interesdun guztiak aintzat hartzea politikaren lantze prozesuan; bereziki maila guztietako irakasleak.
- Politiken sekuentzia osoa ezartzea, eskolaurretik eskolaz gaindiko hezkuntzara, hezkuntza ez formalera eta bizitza osoan zeharreko hezkuntzara.
- Hizkuntza gaitasun eta premia guztietan zentratzea, gutxiengo komunitateen ama hizkuntzei eustea, haiek ikastea eta erabiltzea barne.
- Ama hizkuntzak eta bestelako hizkuntzak ikasteari buruzko ikerketa kognitiboetatik eta hezkuntza ikerketetatik hartutako datuak erabiltzea.
- Komunikazio teknologiek eskaintzen dituzten aukerak baliatzea.
- Politikak behar bezala ezartzeko behar adina baliabide ziurtatzea.
- Politiken xedeen eta haien ezarpenaren jarraipena eta ebaluazioa maiz egitea.

Irakaskuntza eta ikaskuntza

Hizkuntza politikak bere baitan hartzen ditu arlo soziala, ekonomikoa, eta kultur eta hezkuntza arloak. Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza ezinbestekoa da gizarteek eleaniztasunari eutsi eta hari etekina atera diezaioten. Hezkuntzak, gaitasunek eta laneko politikek hizkuntza ikaskuntza sustatu eta aintzatesi beharko lukete, gizartea osatzen dugun guztioi begira eta hizkuntza aniztasunaren balorazio positiboa eginda. Haurrek eta helduek bizitzan zehar beren hizkuntza gaitasunak garatu, aberastu eta zabaltzeko aukerak izan beharko lituzkete.

Hezkuntza paradigma berri bat behar dugu, jakintza sistema tradizionalak eta alternatiboak bilduko dituen, eta teknologia modernoek baliatuko dena. Hizkuntzak aktiboki ikasteko lekuak ez dira eskoletara eta goi-mailako hezkuntza erakundeetara mugatzen, harago doaz. Kaleek, etxeek, sare sozialek, eremu digitalek, eta iheslarietara laguntzeko egiturek aktiboki susta dezakete hizkuntzen ikaskuntza eta haien balioaren aintzatespena.

Itzulpengintza eta interpretazioa

Zerbitzu horiek ezinbestekoak dira gizarte eleaniztunetako zerbitzu publikoen eta informazio trukearen diseinuan eta eskaintzan. Ezinbestekoa da hizkuntza bitartekaritza profesionala eskuratzeko aukera guztiak izatea, osasun arloan, hezkuntzan, ingurune ekonomiko eta lege inguruneetan modu ekitatiboan parte hartu ahal izateko.

EKITEKO DEIA

Aldaketa gida dezaketen eragile interesdunen artean dira honako hauek: ikertzaileak eta irakasleak, komunitateko langileak, gizarte zibila eta gobernuz kanpoko erakundeak, kultur eta hedabideetako ahotsak, gobernua eta funtzionarioak, negozio eta merkataritza interesak, laguntza eta garapen agentziak, fundazioak eta sozietateak. Adierazitako guztiei honako hauek lortzen lagun diezaguten eskatzen diegu:

- Eleaniztasunaren aurrean jarrera positiboa duten gizarte kohesionatu eta dinamikoak babestuko dituzten hizkuntza politikak, praktikak eta teknologiak babestea.
- Aktiboki sustatzea hizkuntza eskubideak, aniztasuna eta herritartasuna dokumentu ofizialetan eta mezu publikoetan.
- Hizkuntzarekin eta alfabetatzearekin lotutako bazterkeria, aurreiritzi eta desoreka kasu guztiei aurre egitea.
- Gutxiengoei, migratzaileei eta iheslarietara hizkuntza kapital itzela dutela eta kapital hori egungo eta etorkizuneko gure munduarentzat balio handikoa dela onartzea.

Interesdun talde horietako bakoitzak bere erara onartu eta babestu dezake eleaniztasuna, horren bitartez gizarte aurrerabidea eta justizia, eta herritar parte hartzaileak lortzeko. Elkarrekin ekin dezakegu eleaniztasunaren altxor kulturala eta intelektuala babesteko, etorkizuneko belaunaldiei irits dakien.

* You can find references for all statistics online: education.salzburgglobal.org/statements